

NAFARROAKO GOBERNUA

GARAPEN EKONOMIKOA

ESKUBIDE SOZIALAK

OGASUNA ETA FINANTZA POLITIKA

LEHENDAKARITZA, FUNTZIO
PUBLIKOA, BARNEA ETA JUSTIZIA

HERRITARREKIKO ETA
ERAKUNDEEKIKO HARREMANAK

HEZKUNTZA

OSASUNA

KULTURA, KIROLA ETA GAZTERIA

LANDA GARAPENA, INGURUMENA
ETA TOKI ADMINISTRAZIOA

SEGURTASUNA ETA LARRIALDIAK

Nafarroako Gobernuak emakumeak kirol-eremuan ikusarazi nahi ditu

Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak aurreikusi dituen jardueren barruan, partiduak emango dira telebistaz, Komunikazioko Zuzendari Nagusiarekin kolaborazioan

Asteartea, 2018.eko urriak 2

Nafarroako Gobernuak, Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuaren bitartez, emakumeak kirol-eremuan ikusarazi eta ezagutzera emateko zenbait ekintza aurkeztu ditu. Kirola eta Emakumea Planaren barruan burutuko diren sei jardueretako bat da, barne hartzen dituen kirol-hastapena, prestakuntza eta berdintasunerako baliabideak, diru-laguntzak eta pizgarriak, ikusgaitasuna eta komunikazioa, kirol-erakundeetan jardutea, eta kirolean dauden estereotipoak eta jarrera diskriminatzaileak ezabatzea.



Kirol-zuzendariordea den Primitivo Sánchez eta Rubén Goñi, NKGI-ko zuzendari kudeatzailea, ekitaldian.

Kanpaina hau bereziki Nafarroako komunikabideei zuzenduta dago, eta emakumeek hainbat kiroletan izandako lorpen eta merituak aintzat hartuta, haien irudi objektiboa eta ez-estereotipatua ematea eta sustatzea du xede. Kirol-eremuarekin nabarmenki konprometituta dauden emakumeak ikusarazi eta gizartearentzat orokorrean eta gazteriarentzat bereziki erreferenteak sortu nahi dira. Komunikazioko Zuzendari Nagusiak eta Nafarroako Kirolaren eta Gazteriaren Institutuak batera finantzatu dute kanpaina, 50.000 euro eta 30.000 euroekin hurrenez hurren. Kanpaina horretarako 80.000 euro baliatuko dira beraz, 2018ko amaierara arte ekintza ezberdinak burutzeko irratitelebistan eta prentsan.

Aurrera eramango diren ekintzak jada adostu dira komunikabideekin: Navarra Televisión telebistak kirol-modalitate ezberdinetako 11 partidu emango ditu. Irrati-etxeek —Cadena Ser, Onda Cero, Cope, Euskalerrria Irratia eta Xorroxin Irratia—beren kirol-programazioaren barruan emakumezkoen kirolari eskainitako saio bereziak izango dituzte.

Idatzizko prentsari dagokionez, Diario de Navarra eta Diario de Noticias egunkariekin hitz egingo da, astelehenetan orrialde bat utz dezaten emakumeek kirolean lortutako emaitzei buruz informatzeko.